Bestelako Xedapenak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

387

AGINDUA, 2008ko abenduaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz 2006ko maiatzaren 30eko Akordioaren zenbait alde arautzen duena.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, 2006ko maiatzaren 30eko Akordioaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautu behar dituzten irizpideak onartu ziren.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 31ko 14/2006 Ebazpenaren bitartez (ekainaren 13ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz 2006ko maiatzaren 30ean Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako akordioa argitaratu zen.

Beharrezkoa da indarrean dagoen lan-poltsetako akordioa aldatzea, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin lotutako zuzenbide pribatuko erakunde publikoek Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak emateko sistemak erabil ditzaten laguntzeko.

Akordio horren lehenengo azken xedapenari jarraituz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari baimena ematen zaio, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, akordioak aipatzen dituen erregulazio eta aldaketak egin ditzan.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko (ekainaren 13ko EHAA) Akordioaren zenbait alde arautzea eta ondorengo manu hauek osatzea:

1.– Aplikazio-eremuari dagokion 1. artikulua honela idatzita geldituko da:

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

387

ORDEN de 30 de diciembre de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regulan determinados aspectos del Acuerdo de 30 de mayo de 2006 sobre selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de 30 de mayo de 2006, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, se aprueban los criterios que han de regir la selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

Por Resolución 14/2006, de 31 de mayo, del Director de Secretaría del Gobierno y Relaciones con el Parlamento (BOPV de 13 de junio), se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno de 30 de mayo de 2006, sobre selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

Con objeto de facilitar a los entes públicos de derecho privado vinculados a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco el acceso a los mecanismos previstos en la Administración General para la prestación de servicios de carácter temporal, se hace necesaria la modificación del vigente Acuerdo de Bolsas de Trabajo.

De conformidad con la Disposición Final Primera del citado Acuerdo, se autoriza a la Consejera de Hacienda y Administración Pública para que en el ejercicio de las competencias que en materia de función pública le asigna la Ley 6/1998, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, proceda a la regulación y modificaciones a que refiere el Acuerdo.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo único.– Regular determinados aspectos del Acuerdo del Consejo de Gobierno de 30 de mayo de 2006, (BOPV de 13 de junio) y completar los siguientes preceptos:

1.– El artículo 1 referente al Ámbito de aplicación queda redactado como sigue:

Akordio hau…

(Lehenengo atala dagoen bezala idatzita geratu da)

Bigarren atal bat erantsi da, honelaxe dioena:

«Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin lotutako erakunde publikoetan beharrezkoak diren aldi baterako zerbitzuak emateko kontratatu behar diren langileen hautaketa, horiek aldez aurretik horrela eskatuta, baldin eta eskakizun hauek betetzen badituzte:

a) Eman beharreko zerbitzuak bete daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen kidego eta eskalentzat irekita dauden lanpostuetan bitarteko funtzionario izendapenaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen erakunde autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeko otsailaren 25eko 1/2004 Legeak ezartzen duenari jarraituz, edo abenduaren 18ko 2720/1998 Errege Dekretuak araututako iraupen jakineko lan-kontratuen bitartez edo Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2005eko apirilaren 12ko Akordioari jarraituz eginiko txanda-kontratuen bitartez, betiere zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen lan-kontratuko langileen hitzarmenean ezarritako lan-baldintzen arabera ematen badira.

b) Hautaketa-prozesu propioak egin ez ditzaten.»

2.– 11.1 artikuluko g) atala honela idatzita geldituko da:

«Beste herri-administrazio batean izendapen askez betetzen diren lanpostuetako bat aldi batez betetzeko hautatua izateagatik, akordio honen 1. artikuluan ezartzen diren ezaugarriak betetzen dituzten EAEko Administrazio Orokorrarekiko, bere erakunde autonomoekiko eta erakunde publikoekiko harreman juridikoari beren borondatez eta fede emateko moduan uko egiten diotenak.»

3.– 12. artikuluko d) atalari kasu bat gehiago gehitu zaio:

«d.3.– Akordio honen 1. artikuluaren 2. atalean ezartzen diren ezaugarriak betetzen dituen erakunde publiko batean bitarteko funtzionario izendatua izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmeneko 51.1 artikuluan araututako lanpostuan aldi batean jarduteko deialdi batean parte hartu eta gero, beti ere uko egite hori Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari jakinarazten badio.»

4.– 13. artikulua honela idatzita geldituko da:

«Sail, erakunde autonomo edo erakunde publiko bakoitzean langile-gaietan eskumena duten zuzendaritzek kontratu-harremana amaitu dela jakinarazi beharko diote Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari, prest egoerara igarotzeko. Jakinarazpen hau gutxienez amaitze hori

El presente Acuerdo es de aplicación:

(El primer apartado queda redactado como está)

Se añade un segundo apartado que establece:

«La selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal que sean necesarios en los Entes Públicos vinculados a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, previa petición propia de estos, y que reúnan los siguientes requisitos:

a) Que los servicios se presten en virtud de nombramiento de funcionario interino en puestos que se encuentren abiertos a cuerpos y escalas de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos de acuerdo a lo que establece la Ley 1/2004, de 25 de febrero, de Ordenación de los Cuerpos y Escalas de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos o mediante contratos laborales de duración determinada regulados por el Real Decreto 2720/1998, de 18 de diciembre, o mediante contratos de relevo realizados al amparo del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 12 de abril de 2005 cuando estos servicios se presten bajo las condiciones laborales establecidas en el Convenio de Colectivos Laborales de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

b) Que no realicen procesos selectivos propios.»

2.– El artículo 11.1 apartado g), queda redactado de la siguiente manera:

«Renuncien voluntariamente de manera fehaciente a su relación jurídica con la Administración General de la CAPV, sus OO.AA. y Entes Públicos, que reúnan las características que se establecen en el artículo 1 de este Acuerdo, por haber sido seleccionados para el desempeño transitorio de un puesto cuyo sistema de provisión sea la libre designación en otra Administración Pública.»

3.– Se añade un supuesto al artículo 12 apartado d):

«d.3.– Haber sido nombrado interino en un Ente Público que reúna las características que se establecen en el artículo 1 apartado 2.º de este Acuerdo, tras haber participado en una convocatoria de provisión transitoria regulada en el artículo 51.1 del Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo del personal funcionario al servicio de la Administraciones Públicas, siempre y cuando comunique esta renuncia a la Dirección de Función Pública.»

4.– El artículo 13 queda redactado de la siguiente manera:

«Las Direcciones competentes en materia de personal de cada Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público, deberán dar cuenta a la Dirección de Función Pública de la finalización de la relación contractual, para pasar a la situación de disponible. Esta comunicación se

baino 7 egun lehenago gertatuko da, betiere aurretiaz jakiterik badago.»

5.– 16.3 artikulua honela idatzita geldituko da:

«Bete nahi den lanpostua talde bereko kidego bati baino gehiagori atxikita badago edo lan-talde bereko titulazio bati baino gehiagori, lan-kontratuko langileen lanpostuen kasuan, eskatzen duen sailak, erakunde autonomoak edo erakunde publikoak erabakiko du hautaketa egingo den lan-poltsa edo eskala edo lan-kategoria zein izango den.»

6.– Akordioaren 26. artikuluari hirugarren atal bat gehitu zaio:

«Baremazioa berriro egin den urtea baino justu aurreko urtean Administrazio Orokorretik eta bere erakunde autonomoetatik kanpo lanean egon direla, akordio honen 1. artikuluan ezartzen diren ezaugarriak betetzen dituzten langileek berriro barematzeari dagokionez emandako zerbitzu horiek kontuan hartzea nahi badute, beraien kabuz aurkeztu beharko dute, uneko urtearen urtarrilaren 15a baino lehen, erakunde publikoko langile-gaietan ardura duen pertsonak emandako egindako zerbitzuei buruzko egiaztagiri bat. Bertan zehaztu beharko dira urte horretan emandako zerbitzuen aldiak baita zerbitzu horiek zein kidego, eskala edo lan-mailan eman dituen ere.»

XEDAPEN IRAGANKORRA

Erakunde publikoan zerbitzuak bete dituztelarik lan-poltsetan sartuta daudenei dagokienez, betiere 1. artikuluan ezartzen diren ezaugarriak betetzen badituzte eta aurreko 6. atalean ezarritako baldintzen arabera egindako zerbitzuen egiaztagiria aurkezten badute, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunetik 15 egun naturaleko epean, hain zuzen, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera eman dituzten zerbitzuak berriro barematuko zaizkie.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 30a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

efectuará, siempre que sea previsible, con al menos 7 días de antelación a dicha finalización.»

5.– El artículo 16.3 queda redactado de la siguiente manera:

«Cuando el puesto que se pretenda proveer esté adscrito a varios cuerpos del mismo grupo o a varias titulaciones del mismo grupo profesional en el caso de puestos abiertos a personal laboral, el Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público solicitante determinará la bolsa del cuerpo o escala o categoría laboral en la que se realizará la selección.»

6.– Se añade un apartado tercero artículo 26 del Acuerdo:

«El personal que durante el año inmediatamente anterior al año que se realiza la rebaremación ha prestado sus servicios fuera de la Administración General y sus Organismos Autónomos, que reúna las características que se establecen en el artículo 1 de este Acuerdo, y quiera que se le tengan en cuenta esos servicios prestados a efectos de rebaremación, deberá presentar a instancia propia, y antes del 15 de enero del año en curso, un certificado de servicios prestados, emitido por la persona responsable en materia de personal del Ente Público, en el que se determine los periodos de tiempo que durante ese año ha prestado servicios y los cuerpos, escalas o categoría laboral en las que ha prestado dichos servicios.»

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Al personal integrante de las bolsas de trabajo que ha prestado sus servicios en el Ente Público, que reúne las características que se establecen en el artículo 1 de este Acuerdo y que presente el certificado de servicios prestados de acuerdo a los requisitos exigidos en el citado apartado 6, dentro del plazo de 15 días naturales a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, se le rebaremarán los servicios prestados desde el 1 de enero de 2008.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de diciembre de 2008.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.